

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Ordezkapenezko haurdunaldia eta emakumeen oinarrizko eskubideen arteko gatazka

Egilea

Ane Macicior Barcenilla

Gradua

Zuzenbia

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

5. Genero berdintasuna,
10. Desberdintasunak murriztea

Laburpena

Lan hau egiterakoan kontuan izan den hipotesia ordezkapenezko ernaldiak ekartzen dituen zenbait eskubideen ustezko urraketa da. Beraz, GrAL honetan eskubide eta interes hauen artean sortzen den talka eta haren ondorioak aztertuko dira. Gradu Amaierako Lan honen helburua planteamendu hori hala dela zehaztea da, hipotesi hori oinarri moduan hartuta, gaur egungo araudi eta jurisprudenzian duen isla aztertuz. Metodologiari dagokionez, arlo juridikoko lan bat izanik, ikerketa lan bat bezala definitu daiteke, GrAL hau aurrera eramateko ordezkapenezko haurdunaldiari aplikagarri zaion araudia eta honen inguruko jurisprudenzia aztertu baita. Honez gain, aztergai izan da gai honen inguruan sortu den doktrina, batez ere, gaiaren testuingurua garatzeko eta eskubideen teoriaren analisia gauzatzeko. 14/2006 legean, laguntza bidezko giza ugalketa teknikei buruzkoan oinarrituz, praktika honen bidez, alde aurretik beste pertsona edo bikote batekin adostuta, emakume bat haurdun geratzen da. Haurdunaldia amaitzen denean beste pertsona edo bikote hori guraso bihurtzen da. Emakumeak haurraren filiazioari uko egiten dio kontraprestazio baten trukean edo kontraprestaziorik gabe. Ordezkapenezko ernaldiaren inguruan hitz egiterakoan, pertsona askok ugaltzeko teknika moduan definitzen dute. Hala ere, ezin da kontsideratu laguntza bidezko ugalketa teknika moduan erabiltzen diren tekniken parekide denik. Hirugarren honek "bitartekari" moduan parte hartzen duela esan daiteke. Aztergai den praktika honek hainbat egoera oso ezberdin barneratzen ditu, eta horrekin batera, sailkatzeko irizpide oso ezberdinak topatu daitezke ere. Ondorioz, ez dago ordezkapen mota bakarra. Alde batetik, haurdunaldia aurrera eramaten den arrazoiaren arabera, subrogazioa irabazi asmoak lortzeko edo era

altruista batean burutzeko bereizten dira. Horrela, lehenengo hau eredu komertziala izango da, lan honetan sakontzen den eredua. Bestalde, seme-alabaren jatorri genetikoaren arabera ordezkapen osoa eta partziala bereizten dira, azken honetan haurdunarekin erlazio genetikoa izango duen bitartean, subrogazio osoan erlazio genetikoa asmozko guraso edota dohaintzaileekin izango du. Kasuz-kasu aztertuz gero, irizpide anitz aurkitu daitezke sailkapen hau egiteko. Praktika honi aplikagarri zaion araudi bakarra 14/2006 legeko 10. artikulua da. Zeinaren arabera, kontratu honen deuseztasuna ezartzen den eta haurrarekiko filiazioa ezartzeko arauak ezartzen diren. Kontratu honen izaerari dagokionez, argi dago ez dela tipifikaturik aurkitzen den kontratua dela. Hala ere, autore gehienek zerbitzu errentamendu kontratuarekin edota obra errentamenduarekin parekatzen dute. Praktika honen deuseztasuna zuzenean arautzen da espainiar araudian, baina hau egongo ez balitz ere praktika deusez baten aurrean egongo ginateke, kontratu honen kausa eta objektua ez bailirateke zilegiak izango, oinarritzko eskubideekin talkan dauden heinean. 14/2006 legeko 10.2 eta 3 artikuluan kontratu hau dela eta jaiotzen den umearen filiazio arautzen da. Honen arabera, amarekiko filiazioa erditzearen bidez zehazten da, aldiz, aitaren filiazioa erreklamatzeko akzioa izango du haurraren aita biologikoak. Amaren filiazioari dagokionez, mater semper certa est printzipioa jarraitzen da, filiazioa erditzeari lotzen baita. Axioma honen arabera, amarekiko filiazioa erditzearekin zehaztuko da, zeina kasu gehienetan errealitate genetikoarekin bat etortzen den. Izan ere, segurtasun juridiko gehien ematen duen irizpidea da amarekiko filiazioa ezartzek orduan. Aitarekiko filiazioari dagokionez, aita biologikoaren errealitatea hartu daiteke kontuan, eta horretarako filiazio akzioak erabili beharko dira, ez baita automatikoki frogatutzat ematen. Estatu bakoitzak araudia egiteko askatasuna du eta nazioarte mailan jarraibiderik ematen ez denez, estatu bakoitzak araudi propioa du. Hala ere, hiru araubide mota ezberdindu daitezke mundu mailako estatu ezberdinetan ematen den araudia aztertuz gero: debekua, eredu altruistaren erregulazioa, eta eredu altruista zein merkantilaren erregulazioa arautzen dutenak. Lehenengoaren adibide argia da Frantzia ematen den araudia, non deuseza ez ezik, delitu ere kontsideratzen den. Bigarrenaren adibidea Portugal da, non nahiz eta hasiera batean konstituzio kontrako deklaratu, eredu altruista onartzen den. Azken ereduaren adibide dira Ukraina eta Estatu Batuetako zeinbait estatu, non zenbait baldintza ezberdin ezartzen dituzte baina eredu komertziala onartzen den. Ugaltzeko eskubidea da arlo honetan alegatzen den "eskubide" nagusia. Eskubide hau ez da zuzenean Konstituzioan aurreikusten, baizik eta bertako 10.1 eta 39 artikuluen ondorioz inplizituki ulertu izan den eskubide bat da. Hala ere, indarra lortu du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak emandako epai baten harira. Bertan onartzen da nolabaiteko ugaltzeko eskubidea dagoela, bizitza pertsona eta familiarrerako eskubidearen baitan. Hala ere, eskubide hau ez litzateke absolutua izango, eta gainontzeko eskubideek mugatuko dute. Hau horrela, ondorioztatu daiteke estatuak obligazio positiboak dituztela laguntza bidezko teknikak eta adopzioa errazteko baina guraso izateko eskubidea burutzeko inolaz ere ezin da onartu praktika hau teknika zilegi moduan. Egile askoren hitzetan, praktika hau emakumearen borondatearen adierazpena da, eta praktika honen bitartez haien askatasuna baliatzen dute. Ulertzen dute estatuak rol paternalista bat hartuko lukeela eta emakumearen askatasun mugatuko lukeela, haren erabakitze gaitasuna gutxietsiz. Ezin da ahaztu borondatearen autonomia ez dela oinarritzko eskubide bat, nahiz eta Konstituzioan duen oinarria. Beraz,

oinarrizko eskubideek borondatearen muga izango dira, eta kasu zehatz honetan muga moduan jokatzeko dute, emakume zein haurren eskubideak urratzen baitira. Era berean, ezin da baieztatu askatasuna baliatzen denik, kasu gehienetan praktika hau faktore ekonomikora baldintzatua baitago; txirotasuna eta haurdunaldi baten artean erabaki beharko baitute. Pertsonaren duintasuna zuzenean urratzen da praktika honen ondorioz. Nahiz eta ez dagoen orokortu den definiziorik, giza duintasunaren manifestazio nagusia da pertsona bakoitza bere baitan helburutzat hartzea. Beraz, pertsona bat ezin ezingo da beste helburu bat lortzeko instrumentu edo medio kontsideratu. Praktika honen baitan emakumearen gorputza instrumentu bat izatera murrizten da eta honek zuzenean urratzen du pertsonaren duintasuna. Izan ere, gorputzaren eta haren ugaltzeko gaitasunaren merkaturatzen ditu, emakumea kosifikatuz, hirugarren baten guraso izateko nahia asetzeko. Konstituzio Auzitegiak, osotasun fisiko eta moralerako eskubidearen kontzeptua zehazterakoan, aipatu izan du eskubide hau pertsonaren bortxaezintasuna babesten duena dela. Beraz, KA-ren arabera, eskubide hau urratzen dute gorputza lesionatzen duten edozein akziok; gorputzarekiko egindako edozein akziok, kontsentimendu gabe egin badira; eta edozein egitate, osotasun morala lesionatzen badu. Emakume bat haurdun dagoenean lotura emozional estua sortzen da jaioko den haurrarekin. "Arazo" honi aurre egiteko, Estatu Batuetan eta Indian kokatzen diren zenbait agentzietan emakumeei haurrekiko banantzen erakusteko kurtso bat eskaintzen diete. Azken finean, ez sufritzeko emakumeak bere gorputza fabrika bat bezala antzeman behar du. Osotasun fisikoaren inguruan, ukalezina da haurdunaldi batek arrisku handiak sortu ditzakeela. Emakumeak bere uteroa ez ezik, bere gorputz osoa jartzen du haurdunaldiaren menpe. Orokorrean bi enbrioi ezartzea erabakitzen dira eta honek haurdunaldia anitz bihurtzen du. Hau dela eta, termino klinikoetan, haurdunaldi hori arriskuzkoa izango da. Honez gain, emakumeak zenbait tratamendu hormonal jaso beharko ditu, haren fertilizazio prozesua burutzeko. Honek, haurdunaldi natural batekin konparatuz, osasunean arazoak jasateko arriskua nabarmen handitzen du. Aztertutakoa kontuan hartzen bada, haurdunaldia burutzen duen emakumearen osotasun fisiko eta moralerako eskubidea urratzen dela baieztatu daiteke. Emakume honen gorputza xedatzen duena ez baita emakumea bera, komitenteak baizik. Ordezkapenezko ernaldiak lotura zuzena du jaioko diren seme-alaben oinarrizko eskubide eta duintasunarekin. Konstituzioan ezartzen den printzipioetako bat izanik, hiritarren bermea izateaz gain, botere publikoak ere lotzen ditu. Botere publikoek, eta bereziki botere judizialak, babes hau emateko betebeharra dute. Izan ere, botere publikoek eta organo judizialek guraso edo tutoreek ahal horiek adingabearen interesaren alde erabili ditzaten zaintzeko betebeharra dute. Adingabeen interes gorenaren ordenamendu juridikoan ondo barneratua dagoen printzipioa da, zeina legean ezartzen diren baloreekin bat interpretatu behar den. Hala ere, hau ezin da legearen aurka jotzeko bide bat bezala erabili, baizik eta hau aplikatu eta interpretatzeko tresna bat izango da. Beraz, legean ezartzen bada kontratu mota hau deuseza dela, adingabearen interes gorenaren izenean ezin izango da legearen aurkako erabaki bat hartu. Legegileak kontratu honen deuseztasun osoa ezartzen du, eta honela egiten da adingabearen interes gorenaren babesa. Legegilearen jarrera kontuan hartuta, kontsideratzen da haur hauek kontratu mota baten bitartez ez jaiotzea dela hauek babesteko bide egokiena. Ondorio gisa, esan daiteke haurren babesa adopzioa eta haien eskubideak babesteko aurreikusten diren beste instituzio batzuen bitartez

lortzen dela, ez atzerrian burutu den kontratu horren ondorio sortu den filiazioa onartzearekin. Praktika honek, arlo juridikoan ez ezik, gizartean ere eztabaida sakona sortu du, alderdi batean zein bestean kokatzen diren jarrerak sortuz. Bi alderdien artean dauden argumentuak erabat bateraezinak direla esan daiteke. bi jarrera nagusi gailentzen dira: praktika legeztatzeko eta erregulatzearen alde jarri direnak, eta praktika debekatzearen aldekoak. Halaber, kalkulatu da urtean 20.000 ume jaiotzen direla praktika honen bitartez mundu osoan zehar. Horietatik, 800 eta 1.000 ume inguru espainiarren seme-alaba dira. Askotan aipatu izan da praktika hau defendatzeko argumentu bezala praktika honetara jotzea guraso izateko duten aukera bakarra dela, adopzioaren bitartez ezinezkoa baita guraso izatea. Hala ere, ezin da onartu orokorrean adopzioa ezinezkoa dela guraso izan nahi duten pertsonentzat. Arlo honetan argitaratutako datuak aztertuz gero, ikusten da Espainia mailan eskatzen diren adopzioen %93-a baino gehiago onartzen direla. Aldiz, ehuneko hau %95-era igotzen da nazioarteko adopzioen kasuan. Honen inguruan ematen den beste argumentu nagusi bat prozedura debekatzearekin ez zaiola arazoari irtenbiderik emango. Hala ere, Auzitegi Gorenak arlo honetan eman duen azken epaia kontuan hartuz eta praktika honek oinarrizko eskubideak urratzen dituela kontuan hartzen bada, Konstituzio kontrako deklaratzeko aukera asko egongo liriteke, praktika hau legeztatuko balitz. Praktikan, ordezkapenezko haurdunaldiaren inguruan sortu diren gatazkak behin haurra jaiota sortzen da. Beraz, arlo honetan kokatzen den jurisprudentziaren zati handiena filiazioa ezartzen duen erabakien onarpenaren ingurukoa da. Auzitegi Gorenaren bi epai azertu dira praktika hau eta haren ondorioak aztertzeko. Bi haien sintesi bat eginez gero, praktika honek espainiar nazioarteko ordena urratzen duela esan daiteke. Hau baieztatzeko AG-k 2014 eta 2022an emandako epaiak hartu dira kontuan, hauetan atzerrian hartutako erabaki bat onartzearen inguruan erabakitzen da, orden publikoa alegatuz hauek ez onartzeko arrazoi moduan. AG-ren ustez, praktika honek haurdunaldia eta filiazioa merkantilizatu eta kosifikatzen ditu, eta emakume eta haurren esplotazioa ahalbidetzen du. Honez gain, Auzitegi Gorenak argi ikusten du praktika honen eredu komertzialean haurren salmenta bat burutzen dela eta emakume zein haurren oinarrizko eskubideak zuzenean urratzen dituela. Honekin lotuta, haurraren interes gorenaren inguruan hitz egiten du, haurra jaiota eta de facto familia bizitza egiten baitu asmozko gurasoekin. Egoera honetan, ulertzen du AG-k adopzioa izango dela haurraren interesak babesteko dituen bide zilegia. Giza eskubideen Europako auzitegiari dagokionez, *Menesson vs Frantzia* eta *Labasse vs Frantzia* eta *Paradiso* eta *Campanelli* eta *Italia* hartuko dira erreferentzia moduan. Frantziaren aurkako aipatu diren bi epaiak ondorio eta analisi bera dute, oso antzeko kasuak baitira. Izan ere, Frantzian praktika honen ondorioz jaiotzen diren haurren filiazioa zehazteko biderik ez da aurreikusten. Beraz, filiaziorik lortzen ez denez, nortasun propioa jasotzeko eskubidea urratzen dela ondorioztatzen da eta honekin batera haurraren bizitza pertsonalerako eskubidea. Hala ere, ordezkapenezko haurdunaldia legezkota den estatu bateko erabakia zuzenean ez onartzeak ez du eskubide hau urratzen zuzenean, kasuz kasu azertu beharreko inguruabarra baita. Ondorioak LEHENDABIZIKOA: ekintza edo praktika berbera, Estatu batzuetan delitu kontsideratzea eta besteetan sustatzen den jarduera izateak, gaiaren inguruan dauden muturreko jarrerak azaleratzen ditu. BIGARRENA: Ordezkapenezko haurdunaldiak oinarrizko eskubideen urraketa ekartzen du. HIRUGARRENA: Emakumearen duintasuna zein osotasun fisiko eta moralerako eskubidea urratzen dira.

LAUGARRENA: Emakumearen eskubideak ez ezik, haurren eskubideak ere urratzen dira, prozesu honetako bi subjektu zaugarriak. BOSGARRENA: Ordezkapenezko haurdunaldia legeztatzea ez da arazoaren irtenbidea AZKENA ETA LEGE FERENDA PROPOSAMENA: ordezkapenezko ernaldiaren inguruko nazioarteko gutxieneko adostasun baten beharra.

2030 Agendaren GIH Ekarpenak

Lan hau 2030 agendako bosgarren helburuarekin lotzen da zuzenean, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan burutu baita lan hau. Bereziki, ordezkapenezko haurdunaldiak genero berdintasunaren arloan gatazka sortu du azken aldi honetan. Izan ere, lan honetan praktika honen inguruan dagoen arazo nagusiak aztertzen dira. Hala, gaiaren azterketa konstituzionala egiten da, jokoan dauden oinarrizko eskubideak aztertuz. Lan honen ondorio nagusi bezala kokatu daiteke gai honen inguruan dagoen adostasunik eza, baina honez gain praktikak urratzen dituen oinarrizko eskubideak ere aztertu dira. Bereziki, praktika honetan barneratzen diren emakumeen eskubideak aztertzen dira, hauen duintasun eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea urratzen dira zuzenean. Praktika hau emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunera lotzen da zuzenean, praktika honen inguruan dauden urraketa sistematikoak aztertzen diren heinean.